

## **Bakearen Museoa. 2007an arrakasta izan zuelako, berriro ikusgai da ' Hiroshima-Nagasaki '**

Kultura

Mundu zabalean erakusgai izan den leku guztietatik, Gernika-Lumon izan ditu erakusketak bisitari gehien.

o. cabello

2007. urtean Bakearen Museoan ikusgai izan zen ' Hiroshima-Nagasaki ' erakusketa ekarri du, berriro, museo horrek. "Urte hartan erakusketa oso arrakastatsua izan zen, eta jendeak luzatzeko eskatu zигun. Hala ere, guk bagenuen urteko programa eta ezinezkoa zen luzatzea, azaldu zuen museoko zuzendari Iratxe Momotiok barikuan egindako aurkezpenean.

Inon baino bisitari gehiago

Obejktuak ez, baina panelak badaude ikusgai oraingoan, ekainera arte. Nagasakiko Bonba Atomikoaren Museoaren erakusketa da Gernika-Lumon ikusgai dagoena. "Mundu zabalean erakusgai izan den leku guztietatik Gernika-Lumon izan du bisitari gehien, zehaztu zuen Momotiok, 2007ko erakusketari erreferentzia eginez. Orduan Bakearen Museoak 17.000 bisitari izan zituen erakusketa egon zen aldian. "Hala ere, Picassoren zirriborroak ere bertan ziren, eta horrek eragina izan zuen bisitarien kopuruan. Aldi baterako erakusketa guztiak legez, ' Hiroshima-Nagasaki ' -koa ere doakoa dela gogorarazi dute museoko arduradunek.

Mezuak eta paper-puskak

Bonba atomikoak bi hiri horietan egindako kalteak erakusteaz gain, parte hartzeko aukera ere ematen du erakusketak. Batetik, bisitariak euren mezuak uzteko papertxoak daude eskegita horma batean. "Horiek batu eta Nagasakiko museora bidaliko ditugu, azaldu zuen museoko zuzendariak.

Horrez gain, lertxun itxura duten paper-puskak egiteko aukera ere badago. "Bonbaren ondorioz leuzemia zuen neska batek egiten zituen, horrela sendatu egingo zelakoan. Zortzi hilabetera hil egin zen, baina paper-puska horiek ezagunak dira orain. Bisitariak papera hartu eta horiek egiteko aukera du. "Behin kutxa betetzen denean, horiek ere Nagasakiko museora bidaliko ditugu.